

gehiengo  
sozialarekin!



**STEE-EILAS**

**X. KONGRESUA**

**GASTEIZ**

**2014ko**

**maiatzaK 16 eta 17**



## 1. Krisi orokorra

2. IX. Kongresuan bezala, egoera ekonomikoa deskribatzeko, lehenbizikoz krisia aipatu behar dugu. Azaletik bada ere, krisia nola sortu eta haren bilakaera ulertu behar dugu, diskurtso faltsuak alboratzeko. Krisiaren abiapuntua neoliberalismoa da, 1980ko hamarkadan Margaret Thatcher eta Ronald Reaganen eskutik praktikan ezartzen hasi zen aspaldiko teoria.
3. Liberalismoaren muina hau litzateke: zenbat eta traba gutxiago jarri merkatuari, hobe (nahiz eta gustura onartu estatuaren interbentzioa banketxeak eta kapitala salbatzeko); ona da aberats “lehiatsuek” mugarik gabe etekinak pilatzea, horiek hazkunde ekonomikoa sortuko dute, eta, horren ondorioz, populazio osoa gero eta hobeto biziko da.
4. Lehen helburua lortu dute: hamarkada hauetan kapitala abiadura handiz kontzentratu da esku gutxitan. EEBBetako %1 aberatsena (eta, are gehiago, %0,1 eta %0,01) inoiz ez bezala ari da handitzen bere kapitala. Talde hori, krisiak eztanda egin zuen unean galerak izan bazituen ere, ekonomia osoa baino askoz arinago errekuperatu da 2009tik aurrera.
5. Liberalek ez dute lortu, berriz, beren ustezko bigarren helburua: diru kontzentrazioaren azelerazioak ez du hazkunde ekonomikorik ekarri, ezta ekarriko ere. Jakina da 1980tik hona merkatu finantzarioa “askatu” egin dutela, arauak bertan behera utzi, eta espekulazioa erraztu. Hala, etekinak ez dira bueltatzen ekonomia produktibora, eta arlo finantzarioan inbertitzen dira, non irabaziak askoz azkarrago lortzen diren. Horren ondorioz hazkunde ekonomikoa moteldu egin zen.
6. Jakina da nola sortu zen krisia: hazkunde ekonomikoa geldotzean enplegua ez zen sortzen, langile gehienen eros ahalmena jausi egin zen, eta, neurrigabeko kontsumoa sustatzen jarraitzeko, kredituak biderkatu ziren, eta hola burbuila finantzarioa sortu zuten. 2007ra arte zor pribatu izugarria sortu zen, eta, burbuila apurtzean, Iparraldeko gobernu guztiek milioiak gastatu zituzten banketxeen zor haiei aurre egiteko, hau da, banketxeak salbatzeko, eta horrela, pribatua zen zorra publiko bihurtu zuten. Ahaztu zuten finantzak kontrolatzeko arauak berrezartzea, eta “ongizate estatua” suntsitzeari ekin zioten, defizit publikoa kitatzeko. Dena den, zor publikoak ez zuenez krisia sortu, ezin du krisia amaitu, eta austeritate politika horiek ez dute hazkunde ekonomikorik ekarriko. Edozein kasutan, hazkunde ekonomikoa ezin dugu helburutzat hartu; kontrara: Iparraldean deshazkundearen bidea jarraitu beharko genuke.
7. Hirugarren sententziari dagokionez, hau da, liberalismoarekin gizarte osoa hobetuko zela dioena, aski frogatuta dago gezur hutsa dela. Errekurtso

guztiak gutxiren eskuetan jarrita ezinezkoa da gehienon egoera hobetzea, aldiz, desberdintasunak gero eta handiagoak dira. Gainera, liberalismoak “estatu gutxiago eta merkatu gehiago” bilatzen duenez, errekurtsio naturalak pribatizatzea, politika fiskal atzerakoiak ezartzea eta gizarte zerbitzuak esku pribatuetara pasatzea eta murriztea dakar.

8. Aurrekontu publikoetan, oreka printzipioa beste edozeren gainetik mantentzeko irizpidea ezarri da. Hau da, gastu publikoa diru sarrerekin partekatu behar omen da, baina, aldi berean, diru sarrerak gero eta urriagoak dira, ez bakarrik krisiagatik, baizik eta zerga politikagatik ere. Hala, zerga gutxiago kobratzen da, eta, kobratzen direnen artean, zeharkakoak gero eta handiagoak dira zuzenekin alderatuta. Zerga zuzenei dagokienez, lanerrenten gaineko zergetan gero eta alde gutxiago dago errenta altuenen mesedetan, eta gero eta arinagoak dira zergak kapital errentetarako. 1980ko hamarkadatik hona, kapitalaren gaineko zergak etengabe ari dira jaisten Iparraldean (bataz beste %45 ziren 1986an eta %25 2011n) eta, bereziki, transnazionalentzat. Azken horiek ahalmena dute zergak non ordaindu erabakitzeko, paradisu fiskaletan barne.
9. Desberdintasun sozialak hazi egin dira Iparraldeko herri ia guztietan 1980tik hona, lan baldintzak kaskartzeak (“malgutasuna” deritzoten horrek) BPGean (Barne Produktu Gordinean) soldaten pisua gutxitzea ekarri du, eta, Ongizate Estatuaren mekanismoek etekinak birbanatu arren, ez dira nahiko soldaten jaitsiera konpentsatzeko. Mekanismo horiek, gainera, ahultzen ari dira 1990ko hamarkadatik hona.
10. Estatuaren joera antidemokratikoari buruz IX. Kongresuan esandakoak, zoritxarrez, bere horretan dirau, eta horren erakusle ugari dugu: errepresio politikoa, emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio neurriak (hainbatetan legeak babestuta), heriotza zigorrak, migratzeko askatasun falta, eskubide sexualak ukatzea, espioitza instituzional orokorra... demokrazia faltak hil egiten ditu pertsonak, modu eta toki askotan. Merkatuari aitortzen zaizkion askatasuna eta eskubideak ukatu egiten zaizkie pertsonari.
11. Gero eta injustuagoa eta jasangaitzagoa den egoera sozioekonomikoak neurri gogorrak eskatzen ditu bere horretan mantentzeko; hala, edozein motatako disidentziaren kriminalizazioa eta mobilizazioen errepresioa zabaltzen ari da. Horrela, gizartearen kontrola areagotzen ari da, gaurko teknologiak eskaintzen dituen baliabide indartsuekin, eta horrekin batera errepresioa errazten duten legeak ezartzen doaz, sakondu eta garatu behar harko litzatekeen demokrazia ahul eta herren hau are larriago kaltetuz.
12. (Paragrafo ezabatua).

13. 2013ko irailean, NBERen IPCCak (Nazio Batuen Erakundearen Klimaren Bilakaerari Buruzko Gobernuarteko Aditu Taldeak, ingelesez) 5. txostena argitaratu zuen. Gero eta argiago dago aldaketa klimatikoa pertsonen jarduerak sortua dela, eta aldaketa horren ondorioak oso larriak direla eta larriagoak izango direla. Txosten bakoitzak txiki utzi ditu aurreko txostenaren aurreikuspen ezkorrenak. Hala ere, batzuek pozgarriz jo dute Artikoko petrolioa erraz ateratzeko izango duten aukera, edota izotza desegitean Iparreko Itsasoan nabigatu ahal izatea... Premiazkoa da ignorantzia eta neurrigabeko atrebertzia horiei aurre egitea, biziraupena kolokan dago eta.
14. Bestelako diskurtsoa behar dugu: enpleguaren sorrera, babes sozialeko neurriak, lan guztiaren eta ondasunen banaketa justua, ekologia, elikaduraren subiranotasuna, energiaren eta garraioaren bestelako ereduak, herrien arteko elkartasuna, etorkizuneko belaunaldiekiko jarrera arduratsua... ezinbesteko osagaiak dira gauden atakatik ateratzeko.
15. Gezurra da ustelkeriak eta norberekeriak parekatzen dituztela erakunde guztiak, dirua baino ez duela bilatzen gizakiak, zorientasuna kontsumoan datzala, gu ondo bizitzeko beste askok txarto bizi behar dutela, edota erre-kurtso falta dagoela munduan pertsona guztiak elikatzeko, hezteko, osasuntsu izateko eta beren kulturak eta ezagutzak garatzeko... Alderantziz, andre-gizonen espeziea bizirik dago pertsonak elkarrekin bizi direlako, ondasunak partekatzen dituztelako eta ahulezia egoeretan elkarri babesa ematen diotelako. Langileen borrokak eraiki zuen “ongizate estatua”, feminismoak erakutsi zuen lan merkatutik kanpo egiten den lanaren garrantzia, baita lan hori pertsona guztien artean banatzeko eta enplegu bihurtzeko premia, mugimendu ekologistak ohartarazi gintuen lurraren mugaz... Elkartasunak, hausnarketa kritikoak eta borrokarako lankidetzak mugitzen dute mundua, ekoizpen sistemaren eta merkatuaren sistemaren oinarriak, helburuak eta araudiak oso bestelakoak badira ere.

## 16. Estatu espainiarra

17. Estatu espainiarrean, krisiaren hasieran soldaten pisua pixka bat igo zen BPGarekiko, lehen momentuan etekin enpresariak behera egin zutelako, baina 2010etik aurrera aurreko joerara bueltatu dira. Produktibitatea hazten ari da, baina etekinak patronalaren eskuetara doaz soilik. Soldatak kaskartzen ari dira, kontratuak apurtzea ia doakoa da patronalarentzat, negoziazio kolektiboa desagerrarazten saiatzen ari dira, pentsioa lortzea gero eta zailagoa da, haien balioa gutxitzen ari da... 2007tik 2011ra Europar Batasuneko irabazien kontzentrazio handiena gauzatu da estatu espainiarrean: 2010etik 2013ra milioi bat dolarretik gora dutenek nabarmen

handitu dute bere ondarea. 107 pertsona gehiagok dute 100 milioi baino gehiago. Hau da, Madrilgo gobernukideak krisia amaitzen ari dela esaten dutenean ez dira gezurretan ari, gutxi batzuen kasuan egia da.

18. Aldi berean pobrezia larria eta bazterketa soziala etengabe hazten ari da. Gobernuak neurri bat ere ez du hartu krisia zuten elementuak neutralizatzeko; aldiz, urteetan lortutako eskubideak kiskaltzen ari da. Troikaren aginduei men egin, zero defizita helburu hartu eta azken lau urteotan lege aldaketa ugari egin dute. Esanguratsuenak hauek lirateke: Konstituzioaren erreforma 2011n PSOEk (gobernuan) eta PPK adostuta (aurrekontuetako derrigorreko “oreka” ezarri zuten); erreforma laboralak (PSOEk 2010ean, PPK 2012an) eta pentsioen erreformak (PSOEk 2011an eta PPK 2013an) eta... Badaude, gainera, etengabeko murrizketak zerbitzu publikoetan eta horiek pribatizatzeko apustu garbia.
19. Lege horiei eta politika sozial atzerakoiei esker, biztanle gehienak errenta gero eta baxuagoak jasotzen ari dira urterik urte, eta aurretik aurreztu edo metatuta zuten ondarea galtzen ari dira (bataz beste 21 puntu 2007tik 2013ra).
20. Enpleguaren suntsiketa etengabea da 2007tik hona. Argi dago erreformek ez dutela enplegua sortu, ezta horren suntsitzea moteldu ere. Otsailean bi urte bete zituen azken lan erreformak, eta tarte horretan enpleguaren %19,9 desegin da. Eurostaten arabera, 2014ko urtarrilean langabezia tasa orokorra %26,7koa da, puntu bat gehiago emakumeentzat, eta 25 urtetik beherakoentzat %57,7koa. Europa osoko datu kaskarrenak dira, Greziarena salbu, bataz bestekoaren (%10,9ren) oso gaintik, eta ez du ematen datozen urteetan hobetuko direnik. Lanpostuen galerak fase batzuk izan baditu ere, 2013an sektore guztietara zabaldu da, eta sortzen ari den enplegua prekarioa da oso; dena den, aipatu behar da aurreko urteetan ere, 1994tik 2007ra, hazkunde ekonomikoaren garaian, enplegu prekario ugari sortu zela, eta horretara egokitu ziren milaka etorri ziren beste herrialdeetako langileak.
21. Krisi garaian etorkinen errealitatea, autoktonoenarekin alderatuta hauxe da: haien artean langabetu gehiago dago, lan prekarioa dute, prestazio gutxiago eta txikiagoak dituzte, lanik gabe geratuz gero ilegal izateko arriskuan aurkitzen dira, diru gutxiago jaso eta irabazi sorta txikiagoak bidaltzen dizkiete beren senideei; haien seme-alabek emaitza kaskarragoak izaten dituzte ikasketetan. 2008an PSOE hasi zen “jaioterrirako buelta” bultzatzen eta espetxeak bezalakoak diren *CIE* izeneko zentruetan gordetzen; PP etorri denean ildo beretik joan dira gauzak, eta hainbatetan okerrago: arreta medikoa murriztu diete, diskurtso xenofoboak zabaltzen dituzte partidu batzuk hauteskundeetan...

22. Etorkinen kasuan bezala, politika ekonomikoan PSOEk zabaldu zuen austeritate bidea PPK sakondu du. Baina dena ez da austeritatea, 2014ko aurerekontu proiektuan gastu militarren “inbertsioak” 2013koak baino %17,1 handiagoak dira, egunero ezagutzen ditugu ustelkeriak bultzatutako gastu berriak alferrikako azpiegiturretan, edota, zuzenean, kargu publikoak baliatuz hainbatek egindako lapurretak: esan bezala, aberatsenen taldea handitu egin da krisi garaian. Monarkiari buruz ez gara luzatuko, aipatuta dena esanda dago.
23. Estatu espainiarrean bi partidu nagusien politika ekonomikoak antzekoak dira, eta ustelkeria larria bietan agertzen da. Azken urteotan, gainera, PPren gehiengo absolutuarekin, Espainiako gobernuak daraman joera atzerakoiak abiada izugarria hartu du jendartearen gai guztietan: abortuaren legea, berdintasunaren ministerioa kentzea, LOMCE, energiaren legea, kostaldeei buruzkoa, justizia unibertsalaren aurkakoa Herritarren Segurtasunaren lege proiektua horren adierazle dira. Memoria Historikoaren mugimenduaren existentziak berak eta hark bere lana garatzeko dituen oztupoek argi adierazten dute estatuaren barruan golpismoaren aldeko jarrerak bizirik dirauela.
24. Badira, hala ere, estatuan modu batean zein bestean politika horiek kritikatu dituztenak. Estatu mailako sindikatu nagusien jardura oso eskas geratzen ari da jasaten ari den erasoaren tamainaren aurrean. CCOO eta UGTk beren ustelkeria kontuak eta finantzazio arazoak edukitzeaz gain (gobernuen aldetik sekulako murrizketak jaso dituzte eta milaka liberatu galdu dute) ez dute hartu egoeraren larritasunak eskatzen duen jarrera aktibo eta borrokalaria; prekarietatea eta pobrezia zabaldu izanak ez du estatuko bi sindikatu horien konformismoa astindu: murrizketak sinatzen jarraitzen dute, kontzertazio sozialaren aldeko apustua mantenduz (Estatuan, esaterako pentsioen erreforma sinatu zuten). Horretaz gain, estatuko markoa lehenesten dute beste edozeinen gainetik, horrela negozioaren monopolioa beren eskuetan egongo dela jakinda. Orokorrean ez dute lankidetzaz bilatzen beste sindikatuarekin, ezta beste mugimenduekin ere, eta noizbehinka estatu osoko deialdiak egiten dituzte Madrilen, haien deialdiak jarraitzen dituztenekin inolako konpromisorik hartu gabe.
- 24 bis. Sindikalgintzatik at, emakumearen borrokaren mugimendua bizirik mantentzen da aldaketa sozialaren tresna bezala. Bide horretan, esan dezakegu gizonen eta emakumeen artean berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren kontrako aldarrikapenak eta borrokak berpiztu egin direla azken urteotan.

Izan ere, gobernu neoliberal eta erreazionarioen aurrean, eta lege atzerakoiei erantzuteko, mugimendu feminista era askotako borrokak egiten

ari da. PPren gobernuak sektorerik kontserbatzailenaren eta eliza kato-likoaren agindua betez abortoaren legearen erreforma egin du, hau da, aspaldi aldarrikatutako eta partzialki lortutako eskubidea da gaur ukatu nahi dutena. Erreforma honek frankismoaren garai ilunenetara eramango gaitu.

Horrek astindu handia eman dio emakumeen sektore handi bati, hain zuzen mobilizazioetan parte hartzen ez zuenari. Momentu honetan gaia pil-pilean dago, emakumeen asanbladak egiten ari dira eta kalean zein hedabidetan dagoen aldarrikapena da. Gorputzaren eta bizitzaren inguruan askatasunez erabakitzeko eskubidearen aldeko borroka indarberritu egin da.

- 25.** Feminismoak irauteaz gain, mugimendu anitz sortu dira urte hauetan han- hemenka: sektoreetako zerbitzu publikoen aldeko mareak, M15, etxetik kaleratzearen aurkakoak... Oihartzun handia lortu dute mugimendu ho- riek, eta berebiziko indarra erakutsi dute aldarrikapen soziala marko zeha- tzean kokatzen dutenek: Balearretako hezkuntzaren aldeko mugimendua, Andaluziako SATen ekintzak, Madrilgo osasun sistema pribatizatzearen aurkakoak... Horrek guztiak eta Kataluniako subiranotasunaren aldeko mu- gimendu erraldoiak erakusten dute benetako aldaketa soziala bultzatzeko ezinbestekoa dela tokian tokiko mugimenduak bultzatzea eta partaidetza eta militantzia lantzea. Estatuaren neurri atzerakoiei aurre egiterik ez dago marko propioak (herri eta gizarte bakoitzak erabakitakoak) jorratu gabe, zentralismoa alboratu gabe, eta elkartasunari ekin gabe berdinen arteko ikuspuntutik, “zentroa” eta “periferia”ren eskema gaindituta.

## **26. Euskal Herria**

- 27.** STEE-EILASen IX. Kongresutik hona Hego Euskal Herriko Legebiltzarre- tako argazkiak aldatu egin dira nabarmen.
- 28.** Nafarroan erakunde politikoak berrantolatu dira: eskumari dagokionez, PPK UPNtik alde egin zuen eta hauteskundera aurkeztu zen; CDNk, berriz, ez zuen ordezkartzarik lortu eta desegin zen; partidu horiek guztiek batera 24 parlamentari zituzten 2007an, eta, 2011tik aurrera, 23. Bestalde- tik, PSN 12tik 9ra jaitzi zen. Azkenik, 2011n amaitu ez ziren mugimen- duak gauzatu dira esparru ezkertiar eta/edo euskaldunean: NaBaiko eserle- kuak 12 ziren, orain 8 dira, horien artean une honetan solte dauden EAJko biak; IUn 2 ziren, orain I-En 3, eta Bilduk 7 lortu ditu; beraz, azken multzo honetakoak 14 izatetik 18 izatera pasatu dira.
- 29.** UPNk eta PSNk gobernu ituna sinatu zuten, baina horrek urte bat ere ez zuen iraun. Harrez gero, UPN bakarrik dago gobernuan, Legebiltzarreko



erabaki bat bera ere ez du errespetatzen, baina PSNk ez duenez bat egiten zentsura moztioekin, hor darrai, Madrilgo politikak aplikatzen inolako kritikarik egin gabe, eta horiei ekarpen propioak (batzuetan Madrilgoak baino kaskarragoak) eransten.

30. EAEn, Partiduen Legearen aplikazioa leunduta (izan ere, erakunde politiko batzuen gainean ilegalizazio mehatxuek jarraitzen dute) PSE-PP bazkiko itunak ez luke Legebiltzarreko eserlekuen gehiengoa izango, Bildu indarrez agertu da instituzioetan, eta EAJ bueltatu da lehendakaritzan.
31. Hasieran, PNVk PSErekiko diferentziak markatu bazituen ere (PSEren murrizketen politikari egindako kritikei eutsi behar zien, eta lehendakaritza kendu izana ordainarazi) 2013ko irailean itun fiskala sinatu zuten bi partidu horiek, gobernu akordiorako bidean. Itun horren zio nagusiak hauek lirateke: gobernuan estabilitatea lortzea, austeritate politikak aplikatzen jarraitzea, eta Madrilekin harreman baketsuak izatea autonomia itxura ematen duten bitartean. EAJk, 2014ko aurrekontuak PSEekin adostean (ondoren PP ere batu zen), ontzat eman eta bereganatu egin zituen 2010etik aurrera PSEk ezarritako murrizketak hezkuntzan, osasungintzan, administrazioan eta jendarte zerbitzuetan. EAJk erabakitzeko eskubidea aipatzen zuen garaiak oso urrun dirudi une honetan.
32. Bilduren sorrerak erabateko iraulia eman dio mapa politikoari: ezker politikoa, hein handi batean, koalizio horretan bildu da, eta kasu batzuetan (udaletan eta Gipuzkoako Foru Aldundian) instituzioak kudeatzen ditu indar bozkatuena izanda.
33. Agerian geratzen ari da instituzioek boterea dutela baldin eta egoera mantentzearen alde egiten badute, bestela berehala datoz deslegitimazioa eta legediaren aldaketak. Kontraesanak kontraesan, hainbatetan eskuak lotuta izan arren eta joku politikoak mugak ezarri arren, aipatzekoak dira zabor errausketaren plantaren aurka erakutsitako kemena, zerga sistemaren inguruan sortutako eztabaida, instituzioek azpikontratatzan dituzten enpresei egindako exijentziak, edota Madrilgo murrizketak ekiditeko saiakerak. Bereziki interesantea izan da patronalaren haserrea 2013ko martxoan, Gipuzkoako Diputazioak dirua eskaini zuenean egoitzen auzia konpontzeko, baldintza gisa lan baldintzak errespetatzea jarrita; diru arazoak zirenak autonomia-arazo bihurtu ziren egun batetik bestera, eta, hainbatetan patronalek exijitzen duten instituzioen inplikazioa injerentzia jasanezina bilakatu zen, eta negoziatzeko eskubidea aldarri nagusi.
34. Edozein kasutan, **STEE-EILASi** erakunde politikoekiko erabateko independentzia aldarrikatzea dagokio. Independentzia beti izan bada gure

patrimonioa, berebiziko garrantzia du une honetan. Euskal Herriko ezkerreko indar soberanistak metatzen jarraitzeko egin dezakegun ekarpena hauxe da: orain arte bezala, ikuspuntu propioa garatzea eta leialtasunez eta modu kritikoa aritzea harremanetan gainerako erakundeekin.

## 35. Bake prozesua

36. 2011ko urriaren 21ean ETAk armak utzi zituen betiko, Aieteko konferentziak lagunduta. 2013ko abendura arte bake prozesua gauzatzeko ahaleginak askotarikoak izan dira; alderdi politiko, erakunde sindikal eta sozial askok horren alde egin dute apustua, baina Madrilgo gobernuak keinu positibo txiki bat ere ez du egin. Espetxe politikak mendekua eta damua baino ez du bilatzen; 2013ko urrian legez kanpo utzi zuten presoek eskubideen alde borrokatzen duen Herrira erakunde; elkarte eta mugimendu batzuk ilegalizazioaren mehatxupean bizi dira; makroepaketak egiten jarraitzen dute Madrilen, dozenaka herritarren bizitza zeharo baldintzatuta; Parot izeneko dotrina aplikatu dute Estrasburgok uztera behartu arte; Amnistia Internazionalen urteko txostenek tortura praktikak ez ikertzea leporatzen diote estatu espainiarrari... Egoera larri honetan, funtsezkoak dira bi eskari hauek:

- alde batetik, euskal presoek oinarritzko eskubideak errespetatzea, besteak beste: Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituztenak libre uztea, espetxe zigorra luzatzearekin amaitzea...
- eta bestetik, erakunde eta lan politikoa jazartzeko eta zigortzeko abiatu diren ekimen polizial-judizial guztiak bertan behera geratzea.

37. NBEko Desagertuen Batzordeak frankismo garaiko biktimei erreparazioa eta memoria eskuratzen laguntzeko eskatu dio estatu espainiarrari, baina, orain arte, alferrik izan da. 1936an estatu kolpea eman eta garaileen historia idazten hasi zirenek ez dute amore eman nahi, haien kondaira eta zigorgabetasuna babestu nahi dituzte betiko, lehen eta orain, eta Euskal Herriko azken hamarkadetako historia klabe berean kokatzen saiatzen ari dira.

38. ETAREN aldetik borroka armatua bertan behera uztea urrats erraldoia izan da giza eskubideen ikuspuntutik, aspalditik eskatzen genuena euskal herritar gehienok. Bi urte hauetan egindako bideak atzera bueltarik ez du elakoan gaude. Bakebidean asko dago egiteko, elkarbizitza hobetzeko, bide demokratikoak garatzeko eta biktimekin justizia eta erreparazio lanetan aurrera joateko. **STEE-EILAS**ek eskubide guztien defentsarekin duen konpromisoa berrestez gain, gainerako eragileek egiten dutena ere aintzat hartu nahi du eta egiteko falta dena exijitu. Gehiegikeriak ahaztea ez dago gure agendan, inorenak ere ez.

### 39. Migrazioak eta xenofobia

40. Arrazakeria edo jarrera xenofoboak hazten ari dira gure gizartean. Hego Euskal Herrian 2012an %21,3k pentsatzen zuen etorkin “irregularrak” kanporatu behar zirela; instituzioek Nafarroan dirulaguntzak ukatzen dizkiete paperak ez dituztenei, eta EAEn, oinarriko errenta jasotzeko prozesua zaildu duten neurrian, etorkin gutxiagok jasotzen dute; EAeko Heldu zerbitzua 2010ean itxi zen, eta gero inmigrazio zuzendaritza bera ere bai; sarekadak egin dituzte... Hazkunde ekonomikoaren urteetan, estatuan, Europa osoan bezala, oso lege zorrotzak ezarri ziren baina esku zabalez aplikatu; hala, langile asko etorri ziren, prekaritatean eta soldata urriak jasota, eta, egoera aldatuz gero, modu errazean kanporatuak izateko arriskuarekin.
41. Langile atzerritarren hazkunde handia izan genuen 1998tik 2012ra arte: EAEn %1 baino gutxiago izatetik %6,8 izatera pasa ziren, eta Nafarroan %11,15era. 2009tik aurrera hazkundea moteltzen hasi zen, eta 2012an erroldan zeuden atzerritarren kopuruak behera egin zuen, lehenbizikoz. Dena den, noranzko kontrajarriak dituzten mugimenduak gertatzen ari dira: batzuk bueltatu, beste batzuk beren jaioterrietatik etorri, edo Espainiatik alde egin eta Euskal Herriratu, badaude gainera aste barruan lan egitera datozenak eta asteburuan jaioterrira bueltatu behar dutenak, estatuko lege kaskarrenak ere betetzen ez dituzten kontratuen truke. Erroldak ere ez dira guztiz fidatzekoak izena emateko trabak jartzen baitituzte.
42. Dena den, hauxe da interesatzen zaigun datua: kanpoko langile batzuk etortzen dira garai hauetan ere, eta, hemen dauden gehienak hemen geratuko dira hemengo egoera zaila bada ere, zeren eta herri pobretuetan egoera are kaskarragoa da. Esan bezala, etorkinek diskriminazioa pairatzen dute eta premiazkoa da kolektibo horrekiko babes neurriak mantentzea eta indartzea, kulturartekotasuna jorratzea, eskubide guztien aitortza bermatzea haientzat ere, eta xenofobiari aurre egitea, bestela, gero eta arazo larriagoak pairatuko ditugu.

### 43. Egoera ekonomikoa

44. Langabezia eta pobrezia hedatzen ari dira Hego Euskal Herrian. Langabezi tasa 2013ko urrian %17,9koa da, Fagor-Edesa desastrearen ondorioak oraindik ikusteke egonda. Langabezian daudenen ia erdiak, gainera, ez dute prestaziorik jasotzen. Bestaldetik, enpleguaren kalitatea kaskartzen ari da, behin-behinekotasuna handituz (2014ko hasieran %20) eta berme gutxiko kontratuak (jardun partzialekoak, formaziokoak...) ugalduz, aldi berean eros ahalmena nabarmen galtzen ari delarik. Erreforma laborala

Madrilgo gobernuak enpresariei egindako oparia da, eta funtsezko tresna da gure lan eskubideak suntsitzeko, besteak beste, sektoreetako hitzarmenak eta horien indarraldiaren luzapen automatikoa (ultraktibitatea) akartzeko, kaleratzeak merkatzeko, oinarrizko lan baldintzak aldatzeko eta ez-betetzeak bideratzeko.

- 45.** Pobrezia etengabe ari da igotzen, eta gero eta pertsona gehiago bizi da haren mehatxupean: langabetuek, pentsionistek, jardun partzialeko kontratudunek, gazteek (langabezia tasa gero eta handiagoa eta lan merkatuan sartzeko zailtasunak) errekursoak galtzen jarraitzen dute, eta haien prekaritatea betikotzen ari da.
- 46.** Hego Euskal Herriko gobernuen jarrera ingurukoen antzekoa da: troikaren diskurtsoa kolokan jarri ez eta Madrilgo gobernuarekin txandakatu neurri murriztaileak aplikatzeko: gehienetan hangoen esanak bete, eta kasu batzuetan, itxaron gabe, bertoko murrizketak aplikatu. Kemen handiagoa erakutsi du Nafarroako Gobernuak. Urteetako ustelkeria ez dute orain arte ordaindu, ez bide judizialean ezta botoen galeran ere, eta haien gehiegikeriek ez dute mugarik ezagutzen.
- 46 bis.** Gobernuek diskurtso baikorrak egin arren beren burua zurrizteko, aurrekontuen egoera larria da. Asmoa dute gero eta diru gehiago bideratzeko zorra ordaintzera datozen urteetan (EAEn 2015ean 2014an baino %48 gehiago), eta gastu publikoa murriztuko dute defizita gutxitzeko (2014an %1; 2016an %0,2), krisi aurreko mailetara iristeko EAEn eta Nafarroako aurrekontuak %25 igo beharko lituzketen arren. Beraz, arlo publikoko zerbitzuak eta soldatak murrizten jarraituko dutela uste dugu, eta bide horrek, egoera hobetu beharrean, sufrimendu gehiago ekarriko du. Ezinbestekoak dira bestelako politika publikoak eta erabateko erreforma fiskala, legebiltzarkide gehienak horren kontra egiten badute ere.
- 47.** Confedebaskek argi utzi du bere aberria dirua dela: Madrilgo erreforma laboralak ematen dizkion baliabideak sutsuki defendatu ditu langileen aurrean, eta, behar izan duenean, instituzioen aurrean ere.
- 48.** Kooperatiben mundura lurrikara etorri da Fagor eta Edesaren eskutik, eta horren ondorioz, lantokietatik haratago, herri eta zonalde osoak daude krisian murgilduta. Luze hitz egin daiteke euskal Herriko Kooperatiben esperientziari buruz; suziria bezain arin hasi dira batzuk kooperatiben ezaugarri batzuk kritikatzeko -Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren, Garapen eta Lehiakortasun Sailburua barne- eta horiek krisiaren erruduntzat aurkezten. Kritiko horien ustez barne demokrazia, langileen arteko erabaki partekatuek eta lan baldintza egokiak izango lirakeke garai honetan tokiz kanpo leudekeen praktikak.

49. Kooperatiben ibilbidea, baina, luzea eta korapilatsua da. Zalantzarik gabe urteetan erreferente bat izan dira, bertan lan egin duten asko bestelako ekoizpen moduak erakarrita hurbildu dira eta inguruko garapena bultzatu dute. Hori esanda, salatu behar da hezkuntzan eta aurreikuspen sisteman zerbitzu pribatuen alde egin zuten apustua, hipermerkatu handiek tokian tokiko merkataritzari egiten dioten kaltea, deslokalizazioa, eta atzerrian kokaturiko lantokietan langileekiko joera beste edozein enpresaren antzekoa izatea. Beraz, 90eko hamarkadatik aurrera norabide zeharo neoliberala hartu zuen MCCk (soldaten arteko diferentziak handitu, organigramak jerarkizatu...).
50. Ez dugu uste oraingo krisiak kooperatibak harrapatu izana kooperatiba izaerari edo hartutako joera neoliberalari leporatu ahal zaienik. Kapitalismoaren baitan dago krisi ziklikoak sortzea eta indartsu ziruditen enpresak ere suntsitzea.

## 51. Sindikalgintza eta negoziazio kolektiboa

52. Negoziazio kolektiboa kolokan dago, ia 363.000 langile lan hitzarmenik gabe zeuden Hego Euskal Herrian 2013ko abenduaren amaieran, eta beste 47.000 Espainiako itunetara pasatu dira. Soldatak, jardunak... egunetik egunera kaskartzen ari zaizkigu sektore guztietan.
53. Egoera horretan sindikalgintzan aritzea alferrikako lana dirudi, eta urteetan lortutakoa galtzea gure porrotaren isla litzateke. Etsipena eta beldurra nagusitzen ari diren honetan, ezinbestekoa da jasotzen ari garen erasoaren ezaugarriak ulertzea eta jokaldia inoiz ez dagoela amaituta jakitea. Une honetan irizpide hauek ditugu:
54. - Negoziatzeko eskubidea eta joko arauak errespetatzea lortu ahal dugu, baldin eta behar beste indar erakusten badugu. Ez da erraza izango, oso apustu gogorra egiten ari direlako, baina iraganean lortu bagenuen, etorkizunean lortuko dugu berriro. **STEE-EILAS** sortu zenean langileen eskubideak eta lan baldintzak orain baino askoz egoera kaskarragoan zeuden. Europako beste toki batzuetan ez bezala, hemengo ongizate estatua eratu berria dugu.
55. -Balizko negoziazio prozesuetan gaurko murrizketak onartzeak ez gaituela babesten etorkizuneko murrizketen aurrean aski frogatuta dago, beraz, duguna mantentzea eta hobetzea ezinbesteko abiapuntua da.
56. - Prekarizazioa ez da maila gutxiko ezbeharra, ekiditu beharreko eraso batzuk. Horren barruan emakumeen hautu gisa aurkezten diguten jardun

partzialeko lana dugu, etengabe hedatzen ari dena. Jakina denez, jardun mota horren lan sariak, kotizazioak, eta etorkizuneko prestazioak txikiak dira. Errealitateak dio kasu gehienetan jardun partziala dutenek ez dutela aukerarik izan jardun osoa hartzeko, eta gainera, hainbatetan ustez partziala den hori osoa da, baina ordutegi edo egutegia malgututa.

- 57.** **STEE-EILAS**ek Euskal Herria du kokapena eta proiektua. Horrek, berez, ez du definitzen proiektu politiko zehatza estatu espainolekiko harremani dagokienez, baina argi adierazten du gure izaera soberanista, hau da, erabakitzeko ahalmenaren aldeko jarrera. Gure izaera soziopolitikoak ere jarrera korporatibistetatik aldentzen gaitu eta gizartearen gehiengoaren alde, bereziki egoera larriena pairatzen dutenen alde egiten saiatzera bultzatzen gaitu. Bi ezaugarri horiek eraman gaituzte antzeko printzipioak aldarrikatzen dituzten sindikatuekin lankidetzan aritzera.
- 58.** Sindikatu horiek gehiengoa garez Hego Euskal Herrian, gaitasuna eta zilegitasuna dugu mobilizazioak eta grebak konbokatzeke, baita edukiak markatzeko ere. Oso mobilizazio esanguratsuak bultzatu ditugu irakaskuntzan, funtzio publikoan eta maila orokorrean. Hala ere, arazoak ditugu muga batzuk gainditzeko.
- 59.** a) Sindikatuak ez gara langile guztiengana ailegatzeko. Oso lan prekarioak dituztenek ez dute haien burua ikusten sektore jakin bateko langile gisa (izatez, askotan ez dira izaten ere); aktibista asko mugimendu sindikaletik urrun bizi dira; sindikatu batzuen ustelkeria kasuak guztienak balira bezala aurkezten dituzte era interesatuan hedabide batzuek... Gabezia honetatik sortu zen Gure plataforma, eta, ondoren, Karta Sozialaren proiektua, horietan, sindikatuekin beste erakunde batzuk partekatzen dute lana eta protagonismoa. Jendarte mugimenduen mundua anitza da, ailegatzeko dira sindikatuetatik ailegatzeko ez garen pertsona askorengana, eta, gainera, ideiak eta ikuspuntu berriak ekartzen dizkigute. Feminismorik gabe **STEE-EILAS** ez litzateke izango gaur dena, pentsamendu horrek bultzatu zuen emakume asko politikan eta sindikalgintzan parte hartzera, eta, **STEE-EILAS** barruan, ardurak hartzera, emakume idazkaritza sortzera, hezkidetzan lan egitera, hezkuntza modu integralean ulertzera... Gure sindikatuak mugimendu feministan parte aktiboa izaten darrak eta Euskal Herri mailan antolatutako dauden koordinadoretan edota plataformetan gaude, besteak beste: EHko Emakume Mundu Martxa, Abortoaren aldeko Plataforma, Martxoak 8 eta Azaroak 25 koordinadorak...
- 60.** b) Batasun sindikala langile guztion nahia da. Zenbat eta urrunago bizi mundu sindikaletik, zailagoa da ezagutzea praktiken arteko ezberdintza-

sunak eta ulergaitzagoa batasunaren falta. Sektarismotik aldenduta, gure mezuak langile guztiei helarazten saiatu behar gara, helburuak modu argian planteatu, eta, unean uneko aliantza puntualak aldakorrek izan daitezkeela jakinda, gutxieneko koherentzia, gardentasuna eta elkarrekiko errespetua mantendu eta exijitu behar ditugu beste sindikatuetik harremanetan. Sindikatuen batasunak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu; baina eraginkorra izateko batasun horrek oinarri sendoak behar ditu, egiazko edukiak eta konpromisoak behar ditugu gehiengo sendo eta eraginkorra osatzeko eta nahi dugun jendarte ereduaren alde egiteko.

61. c) Estatuko langileekin lankidetzaren esperientzia praktikoa gutxi egin dugu, eta bat ere ez Europako gainerakoekin. 2011ko apirilean Madrilerako martxa egin genuen Galizako CIG, Kataluniako CSC, Kanarietako IC, Aragoiko OSTA eta Euskal Herriko ELA, LAB, **STEE-EILAS**, EHNE, HIRU eta ESK sindikatuaren 5.000 ordezkari. Hartaz aparte, hezkuntza esparrura mugatu gara, eta agerraldi batzuk, hizkuntzen trataeraren inguruan batez ere, egin ditugu, oso gertuko sindikatuarekin. Kasu hauek, noizbait, elkartasunaren lotura organikoaren artean nahasmena sumatu dugu. Garrantzia du biak bereizteak, baita estatuan zein European koordinazioaren alde egin dezagun, gure indarren neurrian. Eredu hau kontrajartzen diogu estatuko sindikatu nagusien joerari. Horiek bereganatu egin dituzte gauzatu ez dituzten borroka eta izatez ez duten ordezkariak.
62. Negoziazioetan dugun praktika sindikala irizpide batzuek markatzen dute:
63. • Negoziazio esparrua sektoreko mahai negoziatzaileak izan behar du, beste esparruak bultzatzeak (“elkarrizketa sozialaren” foroak, estatu osoko akordioak, funtzio publikoaren mahaiak...) benetako ordezkariak sindikala desitxuratzen dute eta langileen parte hartzea oztopatzen dute.
64. • Ahalik eta ezberdintasun gutxi izan langileen artean, gehien eta gutxi kobratzen dutenen artean, “berrien” eta “zaharren” artean, funtzionario eta ez-funtzionarioen artean... lana edo ardura bereziak saritzean denbora lehenestea diruaren gainetik.
65. • Aparteko orduak saihestea eta lanaren banaketa bultzatzea, lan prekarioa sustatzen duen edozein neurriren kontra.
66. • Genero berdintasuna bultzatzea, zalantzatan jartzea ustez lana eta familia bateragarri egiteko hartzen diren neurri batzuk, hainbatetan hazkuntza eta zaintza lanak emakumei soilik leporatzeko baliokidute eta.

67. • Gaixotasun profesionalak eta lanpostuen egokitzapena kontuan hartzen dituzten lan-osasuneko prebentzio-planak prestatzea eta betearaztea.
68. • Azpikontratazioei ezezko biribila ematea eta dauden lekuetan kentzeko ahaleginak egitea; bitartean, bertan lan egiten dutenentzat enpresa nagusiarekiko edota administrazioaren langileekiko homologazioa eskatzea.
69. • Lan baldintzak hobetzea ez ezik, hezkuntza sistema gure jendartearen beharrietara egokitzen saiatzen gara, hala, hezkuntzaren kalitatea, euskalduntzea eta publikotasuna indartzea, hezkidetzak, kulturartekotasuna, ekitatea eta laikotasuna sustatzea, eta hezkuntza zerbitzu osagarriak zabaltzea bilatzen dugu.
70. • Negoziazioaren prozesu osoan, eta bereziki zerbait sinatzerakoan, sektore osoari informazio nahikoa ematen diogu, eta iritzia jasotzen saiatzen gara; aldi berean, gure afiliatuen parte hartzea ahalik eta handiena izan dadila bultzatzen dugu.
71. • Sinatzeko ordezkari sindikalen gehiengoa behar dugu, bestela, edukiarekin ados egon arren, ezin dugu sinatu.
72. • Sinaduraren inguruan erabakiak hartzeran balizko akordioaren edukia eta langileengan izango duen eraginari erreparatu diegu, hemen aipatu ditugun irizpideen arabera, inoiz ez administrazioaren edo patronalaren izaera politikoari.







**STEE-EILAS**  
**X. KONGRESUA**  
**GASTEIZ**  
**2014ko**  
**maiatzak 16 eta 17**